

KATEKESIA BILBOKO GURE ELEIZBARRUTIAN VATIKANOKO II.A KONTZILIO EKUMENIKOAREN OSTEAN

Sarrera

Bilboko gure eleizbarrutian egindako lanen “memoria” moduko bat idatziz jasotzea mesedegarri dala ziurtzat jota, aspaldiko urteotan hazurmamindu eta gauzatu dana papereratu gura neuke, neuk bizi izan dodan neurrian eta epean.

Berariaz, katekesi arloa aztertuko dot. Gure eleizbarrutiak 70 urte betetzen dituan honetan, estimuz eta maitasunez ekiten deusat lan honi. Kontzilioa (Vatikanoko II.a) amaitu eta behingoan zirkin eta astindu handia hartu eban gure eleizbarrutiak pastoralgintza osoan eta, aparteko eran, katekesigintzan. Baina, 1965. urtean amaitu zan kontzilioak eraginda, 80ko hamarkadan bizi izan eban ikaragarritzko bultzada Bilboko eleizbarrutiak. Izan bere, orduantxe haragitu eta hazurmamindu zan gurean kontzilioaren harrera. Eleizbarrutiko Batzar Nagusiaren erabagiak (1984-1987) liburua da pastoralgintzako arlo desbardinetan bizi izandako eraldaketa eta bermoldaketa askoren lekuko. Batzarraren amaieran hurrengo hau esaten euskun Batzorde Eraginkorrek:

“Maiatzaren 17ko ospakizunean, Elizbarrutiko Batzar Nagusia ekiñaldi barrian sartzean, Sinismen Agirian autortu gendua na oihukatzen dogu barriro:

“Basamortuan zehar, Lurralde Barri baten bila goaz,

ibilaldi luzearen hautsa oinetan batuz.

Amaiera hau beste ibilaldi zailago baten hasiera dana badakigu, gure erabagiak eta asmoak beteaz jantzi beharko dogun ibilaldia.

Baina, argi itzi nahi dogu, Batzar Nagusiaren joan-etorrian, ibilaldian bertan aurkitu dogula gure poztasunik handiena: bide luze hau alkarrekin egitean, Eleizearen Alkarte izatea geure eskuz ikutzea.

Herri garala ikusi dogu, bidez doan Jainko Herria,

bere abotsa eta galdutako nortasuna barriro aurkitu dituan herria.

Gaurtik aurrera, ez da ezer bardin izango Bizkaiko Eleizan, alkartearen bihotzean berbea barriro jaio da-ta” (ik Aurkezpena, 10. Or.).

Bizkaiko Eleizan, alkartearen bihotzean berbea barriro jaiotze horrek katekesi arloan egin izan dauan bidea azertu gura dot ahal dodan neurrian.

Gure eleizeak eta katekesi ekintzak kontuan izan ditu, bidezko danez, Erroman argitara emondako Dokumentuak, Aita Santuengandik eta Kongregazinoetatik egin eta zabalduak.

+ Kontzilioak, Vatikano II.ak, ez eban ezelako Dokumenturik argitaratu, berenberengi, katekesiaren eta katekesigintzaren inguruan. Halan bere, bertan egindako gogoeta sakon eta ugariak ikaragarritzko aldaketa eskatuko eban ebanjelizatze bideetan eta katekesigintzan.

L.G. / G.S. / eta A.G. agirietan eleizaren irudi barria, munduagazko beraren hartu-emon barriak eta eleizaren ebanjelizazio bideetan ikuspegi barri eta eraldatzaileak eskeini euskuzan Kontzilioak. Horrek guztiak bultzada barri eta eraldaketa sakona eragingo eban katekesigintzako arlo zabalean.

Eta D.V. eta S. C. Konstituzinoek Jainkoaren Hitzaren eta Kristau-Misterioaren ospakizun bideetan eraldaketa aberats eta sakonak egiteko aukera eta eskaera eskuratzen euskuen (beste askoren artean seinalagarria liturgian herri-hizkuntza erabili ahal izatea).

+ Eleiz-agiri eta Dokumentu barriak Kontzilio ostean:

Eragin ikaragarria izan daben ezker, bai Erromatik, bai Madriletik jaso izan doguzan Dokumentu edo Agiri nagusiak aitatu beharrean aurkitzen gara:

Erromatik bertatik (Aita Santuengandik eta Kongregazinoetatik):

RICA (1971): Helduen Kristau Sarbiderako Rituala
DCG (1971): Katekesirako Direktorio Orokorra
EN (1975): Ebanjelioaren iragarpena (ebanjelizazioa)
CT (1983): Katekesiaren zabalkundea
CCE (1992): Eliza Katolikoaren Katezismoa
DGC (1997): Katekesirako Direktorio Orokorra (barria).

Madriletik (Espainiako Gotzainen Konferentziatik):

CC (1983): Kristau Alkartearen katekesia
CF (1985): Katekista eta Formazioa
CA (1997): Helduen Katekesia
IC (1999): Kristau Sarbidea

+ Giltzarri barriak Kontzilioaren eraginez:

Alkartearen katekesia
Katekesi misiolari eta ebanjelizatzailea
Familia katekesia. Familiaren partaidetza
Katekista "barria", sinisterik ez dauan gizarterako prestatua
Kristau Sarbiderako Katekesia
Helduen Katekesia: katekesi mota behinena eta nagusia.

+ Ondorenak

Zeintzuk dira? Asko eta ugariak dira, eta hemen batzuk seinalatu geinkez. Egia esan, apurka-apurka joango dira hazur-mamintzen, katekesi ibilbide barriak gauzatu. Hona hemen batzuk:

- “Doktrina” liburutik / “Katekesi Ibilbiderako Baliabideetara”
- “Memoria” lantzetik / Gizakiaren “dimentsio guztiak” lantzerara
- “Edukiak” ikastetik / “Jarrerak” lantzerara
- “Ikasi” egitetik / “Esperientziak” hazur-mamintzerara
- “Ezagutzak” lortzetik / “Sarbide Osoa” egitera
- “Katekistarengandik” / “Alkarte katekesitzaileira”
- “Irakaspen” katekesitik / Katekesi “misiolari-ebanjelizatzaileira”
- “Umeengandik” / “Nagusiengana/Helduengana”
- “Umeengandik” / “Familiengana” (bai Prozesu/Ibilbidearen barruan, bai eta Proiektu barrietan, adib. “Erligio Esnaera Familial 0-6 urtekoengan”).

70.eko hamarkadan Espainiako Gotzainen Konferentziak (Enseñanza) **“Catecismos Escolares” 1.2.3.4.5** argitaratzen ditu eta guk euskeratu egin genduzan **“Kristau Ikasbidea” 1.2.3.4.5**. (Orduantxe (1969) hasi nintzan ni Eleizbarruti arteko lanetan; eta astero/hamabostero joaten nintzan Mikel Zaraterekin Donostiako Seminaria D. Manuel Lekuonarekin kristau ikasbideok euskeraz ipintzerara).

+ IBILBIDE BARRIA KONTZILIO OSTEAN

OHAR GARRANTZITSUA: “Eleizbarruti artean” eratu eta argitaratu doguz gure idazlan eta baliabide guztietatik %90a

edo: KATEKESIRAKO IRUÑEA ETA TUTERA, BILBAO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO ORDEZKARITZA ETA IDAZKARITZAK. Eta Bilboko gure Katekesi Ordezkaritzakook izan gara egilekide, euskeratzaile (batura eta bizkaierara) eta argitaratzaile, geure eleizbarrutietako Gotzainen oneritxiz.

Kontzilio osteko lehenengo azpimarrak:

- Katekesi antropologikoa: ume, gazte eta helduentzat.
- Katekesi pedagogikoa: umeentzat batik bat.
- Esperientziaren katekesia: gaztetxo, gazte eta helduentzat.
- Salbazino historia aintzat hartzen dauan katekesia (Bilbon gehienbat)
- Jesu Kristo erdigune dauan katekesia ume, gazte eta helduentzat (Donostia / Pagola)
- Eleizaren eta Sakramentuen katekesia (Nafarroan gehienbat).

Baliabide ugari sortzen dira bai helduentzat eta bai umeentzat **80ko hamarkadan**. Eta argitaratu ere egiten da **Haurtzaroko Katekesi Ibilbidea 1986-88** urteetan. Hona hemen ibilbide osoa:

1. Jainkoa gure Aita da eta gu bere seme-alaba gaitu.
2. Jesus ezagutu nahi dogu.
3. Jesusek guk Berari jarraitzea nahi dau.
4. Jesusen jarraitzaile alkarte barruan.
5. Jesusen jarraitzaile gure bizitzan.
6. Jesusen jarraitzaile bidez doan herrian.

Liburu guztiak **gatzelaniaz, batuz eta bizkaieraz** argitaratu ziran. Eta dagoeneko, hemen ere **Umearen Liburua** eta **Katekistarentzako Gida** liburuaz gainera, **gurasoen ardurea**

landu gura zan, nahiz eta eurentzako koadernu xume batzuren bidez izan.

Duda barik, 1985-2010 arteko 25 urteetan izan da **gure eleizbarrutiak inoiz izan dauan produktzinorik aberats eta ugariena**. Urte horreetan egiten eta argitaratzen dira era guztietako eta adin desbardinetarako baliabideak.

+ 25 URTE EMONKOR ETA FRUTUTSUAK (1985-2010)

1. Azpimarra “misiolaria”

Bilboko gure eleizbarrutian gauzatzen da azpimarra hori, familien partaidetza eta katekista barrien prestakuntza eguneratua bilatu gurarik.

[‘90.- **Balioetan hezi** / Educar en valores

‘90.- **Ezagutzen al dogu Jainkoaren benetako aurpegia?** ¿Conocemos el verdadero rostro de Dios?

‘91.- **Eta.., nor zara Zu, Nazareteko Jesus?** Y.., ¿quién eres Tu, Jesús de Nazaret?

‘92.- **Nuevos rostros de la Iglesia y de la Moral.** (Euskeraz ez zan argitaratu).

[‘92. **Hauxe hartu dogu Jesusengandik.** / Esto recibimos de Jesús

[‘93.-**Catequistas, testigos de Iglesia.** Formación básica para los catequistas.

2. Haurtzaroko Katekesi Ibilbide barria (1998-2004)

Sei urtetik 12 urtera bitarteko ibilbidea eskeintzen da **Kristau Sarbidea** ardatz eta hari nagusi dauala: **1.- Esnatu! 2.- Etorri eta ikusi. 3.- Jarraitu Nirekin. 4.- Zatozte ospatzera. 5.- Pozik goaz Jesusekin. 6.- Jesusengan sinesten dugu eta Berari jarraitzen diogu.**

Ibilbide barri honek gogoan hartzen ditu: **Umeak / Katekistak eta Gurasoak.**

Ibilbidea 14 liburuk, 3 liburutzok eta 4 zintak osotzen dabe + otoitz liburua.

Gaztelaniaz, euskara batuan eta bizkaieraz egiten dira argitalpenak.

Horrez gainera **“Para nosotros, catequistas” / “Katekista garenontzat” (2004)** Ibilbide osorako Gida liburua argitaratzen da.

Geroago, parroketan **familien partaidetza bultzatu gurarik, “Gida” barri** batzuk argitaratu izan dira gaztelaniaz eta euskara batuan:

¡Despierta! /Esnatu. Gida pedagogikoa, 2010

¡Ven y lo verás! / Etorri eta ikusi! Gida pedagogikoa, 2011

Seguid Conmigo / Jarraitu Nirekin! Gida pedagogikoa, 2012.

Venid a celebrar / Zatozte ospatzera! Gida pedagogikoa, 2014.

Eta, azkenez, beste foileto bat:

Catequistas y familias educamos juntos en la fe / Katekistak eta familiak fede heziketan elkarturik, 2013.

Zabalkundea: Haurtzaroko Katekesi Ibilbide honek argitalpen edo, hobeto esanda, berrinprimaketa ugari izan dau, asko zabaldu dalako gure eleizbarrutietan eta baita beste hainbat eleizbarrutitan ere. Kontuan hartzeko “zifrak”: Haurraren liburua, lehenengo urtekoa: **gaztelaniaz= 537 mila ale; euskaraz= 240 mila ale** saldu dira.

Horrez gainera, “Ibibidea” benetan “best-seller” izatera eroan daben zifra ikaragarriak lortu izan dira, bigarrenetik seigarren urterako baliabideak ugari zabalduz. Lehenengo lau urteetako baliabideak zabaldu dira gehien; bostgarren eta seigarrenekoak hainbat gitxiago.

Horrez gain, Katekistarentzako Gidak, Gurasoentzako liburuak eta Gurasoakazko Batzarretarako liburuak. Baita 4 musika zinta eta Otoitz-liburua eta gainontzeko lagungarriak ere. (Ezin dot ziurtatu urteotan horreek zenbat saldu diran).

3. Katekumenotza erako Helduen Katekesia. Ibilbide barria (PPC 2006-2007)

Bilbo Eleizbarrutiko Batzar Nagusiaren (1984-1987) ostean, urteetako ibilbidean zehar lagungarriak sortzen dira. Batzar Nagusi horretako Hirugarren Gaia: “Umearotik hirugarren adinera heltzen dan jarraiko katekesia” aintzat hartuz, aldi horretan argitaratzen dogu **“Cristianos Adultos” / “Kristau Helduak” (Bilbao 1987)**.

Helduen Katekesi Ibilbidearen gune nagusiak adierazten ditu oinarrizko liburu honek:

1. Funtsezko giza esperientziak edo antropologikoak.
2. Sinesmen esperientzi biblikoak, bakoizkakoak eta elkar-tekoak.
3. Nazaretoko Jesusen misterioa eta beronen mezua.
4. Jesusen jarraitzaileen elkartea eta sakramentuak.

Bilboko eleizbarrutian aparteko indarra hartzen dau **Salbazino Historia** sakontzeak, eta Helduen Katekesirako baliabide barriak egin eta argitaratzen dira: **“Iniciación a la Historia de la Salvación: Antiguo Testamento”**. **Catequista-Animador (Bilbao 1990)**. **“Iniciación a la Historia de la Salvación: Antiguo Testamento”**. **Temas (Bilbao 1990)**. Hemen eginak izan arren, Iruñean, Donostian eta Gasteizen ere erabiliak izan ziran.

Talde askoren esperientziaz baliatuz, --gure eleizbarrutian eta Iruñean, Donostian eta Gasteizen--, azkenik, **Helduen Katekesiko Ibilbide osorako liburuen argitalpenak** lortzen dira, bai euskaraz eta baita gaztelaniaz ere, PPCK interesa agertuz.

Guztira 12 liburu, 6 euskara batuan eta 6 gaztelaniaz: PPC 2006-2007. Hona hemen euskerazkoen tituluak:

0. Egitasmoaren giltzarriak
1. Jainko biziaren bila. Hasierako federantz
2. Jesus, Jainkoaren Salbamena
3. Jesusen jarraitzaileak
- 2/3. Laguntzailearentzako Gida
4. Biziaren Sakramentuak.

Ibilbide honek ere **eragina** izan dau gure eleizbarrutietatik kanpo: Kanariar ugarteetan, Madrilen, Katalunyan... Eta Portugalen ere izan nintzan Ibilbidea azaltzen, Coimbrako eleizbarrutian, gotzaina, ehun bat abade eta Helduen Katekesiko arduradun laikoen aurrean. Euren hizkuntzan argitaratu dabe gure ibilbidea, eta badakit bertan ere taldeak sortu dirana: “Catequese de Adultos de inspiração catecumenal” I, “A busca do Deus Vivo”; eta II, “Jesus Salvação de Deus”. Coimbra 2014.

CAD / EHK

Interesgarria da, baita, Bilboko gure Eleizbarrutian hiru hilabeterik behin argitaratu izan dogun “boletina”, Catequesis de Adultos Diocesana/ Eleizbarrutiko Helduen Katekesia CAD/EHK, aitatzea: “Aldizkari barri emoilea / Helduen Katekesia”. Urteetan zehar, 2015era arte, 148 numerok ikusi dabe argia. Laguntza eta zerbitzu eraginkorra eskeini deutse Helduen Katekesi Taldeei eta eurakandik sortu ziran Eleiz-Alkarteei.

4. Katekesirako eta Hezkuntzarako Baliabideak

Beste esperientzi aberats eta onuragarria ere bizi izan dogu '90 eta 2000ra bitartean.

- Bideoak euskaraz: 37

- Muntaiak euskaraz: 30
- Zintak euskaraz: katekesi ibilbiderakoak eta Umeen Mezatarakoak.

Aurretik baziran hiru bideo IDATZek argitaratuak:

- Bataioa
- Penitentzia
- Eukaristia.

Ume, gaztetxo eta gazteentzat prestatu dira gehienbat lagungarriok. [Ikusi nire informazioa Bilbo eleizbarrutiko “Alkarrren Barri” aldizkarian 1993. 1994. eta 1995eko urteetan].

5. Egileak

Katekesi Ibilbideak eleizbarruti artean sortu doguz, txiteanpitan gure eleizbarrutietako Katekesi Ordezkaritza eta Katekesi Idazkaritzetako arduradunok alkartuz eta lan handia eginez.

- Bilboko Katekesi Ordezkaritza
- Donostiako Katekesi Ordezkaritza
- Gasteizko Katekesi Idazkaritza
- Iruñeako Katekesi Ordezkaritza
- [Bilboko Hezkuntza Ordezkaritza: partaidetza puntuala: “Educar en valores” / “Balioetan hezi”]

Ikusentzunezkoak prestatzerakoan (1994-2000) partaide ekintzaile izan dira gure Eleizbarrutietako Katekesi Ordezkaritza eta Idazkaritzez gain:

- Euskal Herriko Ikastolen Elkarte (E.H.I.E.)
- Irakaskuntzarako Euskal Erlijiosoen Federakuntza (I.E.E.F. / F.E.R.E.)
- Nafarroako Euskararako Pastoralta

- Gasteizko Euskararako Pastoralta.
- Baionako Katekesi Ordezkaritza.

Benetan aberatsa eta onuragarria izan da lankideon partaidetza hau, guztiok ikasiaz gainera, beharrezkoa zan zerbitzu bat eskeini ahal izan dogulako.

6. Argitalpenen Arduradunak

+ **Bilbo Eleizbarrutiko Katekesi Ordezkaritza** izan da argitalpenen arduradun, **bai Haurtzaroko bai eta Helduentzako Katekesi Ibilbideetan**. Ibilbide bietako baliabide guztien **“euskeratzaile” ere –batuan eta bizkaieran– Bilboko Eleizbarrutia izan da.**

+ **“Zinten” grabazioen eta argitalpen** guztiena ere **Bilbo Eleizbarrutiko Katekesi Ordezkaritza** izan da.

+ **“Bideoen”** argitalpenaren arduradun **IDATZ** izan dogu, eta **“Muntaiak”** ere gehienak Donostiako Katekesi Ordezkaritzak eta **IDATZek** bideratu ditu. Itzulpen eta egokitze lanetan lehen goian aitatu dodazan erakunde guztiok parte hartzen genduala..

+ **Gida pedagogikoen (azkenengoen: 2010-2014)** argitalpenen arduradun **Gasteizko Katekesi Idazkaritza** izan da. Katekesirako Idazkaritza eta Ordezkaritza guztiok izan gara egilekide. Eta gida horreen **euskeratzaile (batuan) Bilboko Katekesi Ordezkaritza** izan da.

*** GEHIGARRI ESANGURATSUA

Misino egoera kontuan izanik eta gurasoen partaidetza, ezinbestekotzat jotzen doguna, bultzatu gurarik, parroketako katekesira umeak etorri aurretik familietan lan egiteko baliabideak eskeintzea gura izan dogu. Horretarako, eratu genduan eleizbarrutietako katekesi arduradunok:

“Erljio Esnaera Familian 0-6 urtekoengan”/ “El Despertar Religioso en la Familia 0-6 años” (Vitoria/Gasteiz 2008).

Oinarrizkoa

0. Besoetan (lehenengo hilabeteak)

1. Eskutik

2. Lehenengo hitzak

3. Hemen nauzu

4. Bata besteekin

5. Handia naiz.

Zazpi liburuki: euskara batuan eta gaztelaniaz argitaratuak. Gasteizko Katekesi Idazkaritza izan da egitasmo osoko liburuon argitalpenaren arduradun.

Bilboko Eleizbarrutia arduratu da itzulpenarekin, euskara batuan.

Dagoeneko egin dau PPC argitaletxeak gaztelaniaz bigarren argitalpena ere (2009), nahiz eta parroki askok ez daben oraindino lan hau arduraz eta gogotsu aintzat hartu eta bultzatu. Horixe dogu oraingo oinarrizko erronka!

Lontzo Zugazaga